



# **GOBERNU BILERA**

**Prentsa-Txostena**  
**Erabaki nagusiak**

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

**Dossier de Prensa**  
**Acuerdos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainak 16**

**Vitoria-Gasteiz, 16 de junio de 2020**

## Lehendakaritza

### JAURLARITZAK EUSKAL ERAGILEEN ETA GALESEKO ETA FLANDRIAKO ESKUALDEETAKO ERAGILEEN ARTEKO LANKIDETZA-PROIEKTUAK BABESTUKO DITU

- **Bi eskualde horiek Euskadiko Bazkide Estrategikoen Sareko kide dira**

Gobernu Kontseiluak, gaur, 2020-2021erako Galeseko eta Flandriako eskualdeekin lankidetza teknikoko proiektuak babesteko deialdia onartu du.

Guztira 40.000 euro banatuko dira laguntza horien bidez, eta iaz onartutako Dekretu batean oinarritzen dira. Dekretu horren helburua da alde biko harremanak sendotzea eta Euskadirentzako estrategikotzat jotzen diren kanpoko beste eskualde batzuekin itunak eta lankidetzak finkatzea. Horien artean daude Galesekin eta Flandriarekin egindakoak. Euskal Autonomia Erkidegoak Galesekin Lankidetza Memorandum bat izenpetu du eta Flandriarekin Asmoen Adierazpen bat.

Hala, dirulaguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan helbideratuta dauden pertsona juridiko pribatuentzat dira. Pertsona juridiko horiek alde biko jarduerako lankidetza-proiektua aurkeztuko dute eta bi eskualde estrategiko horietako bazkide batek hartu beharko dut parte bertan.

Zehazki, **Galesen** kasuan, diruz lagundu daitezkeen alde biko lankidetza-proiektuen gaiak hauek izango dira:

- Mugikortasuna eta Garraioa (nagusiki, azpiegitura eta tren-zerbitzuak);
- Ingurumena eta Klima Aldaketa;
- Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasuna;
- Itsas Energiak;
- Nekazaritzako elikagaien industria;
- Hezkuntza eta Prestakuntza;
- Estrategia eta Politika Fiskala, Zerga Administrazioako Politika, Aurrekontuen Kudeaketa eta Gizarte Zerbitzuak;
- Osasuna eta Laguntzako Gizarte Zerbitzuak, balioetan oinarritutako osasun-laguntza, eta zahartze aktiboa eta osasuntsua;
- Negozio-aukerak;
- Gizarte kulturantzuna eta tolerantzia sustatzea (batez ere, hizkuntza-politikaren eta kultur sektorearen sustapenaren arloetan).

**Flandriaren** kasuan, honako gai hauen inguruko lanak lagundu ahal izango dira diruz:

- Ikerketa, Garapena eta Berrikuntza (industria eta teknologia, osasuna, gizarte-politikak, genero-berdintasuna, sektore publikoaren kudeaketa,

- azpiegiturak eta garraioa);
- Lan-merkatua eta politika ekonomikoa (lanbide-heziketa, produktibitate-eta lehiakortasun-politikak);
  - Ingurumena (klima-aldaketa, uren, materialen eta hondakinen tratamendua, eta ingurumenarekin eta energia berriztagarriekin bat datozen teknologiak);
  - Osasuna (batez ere, zaintza kronikoak);
  - Kultura eta Sorkuntza Sektoreak;
  - Gizarte kulturantzuna eta tolerantzia sustatzea (giza eskubideen errespetua eta bakea eraikitzea);
  - Europar eskualdeen papera indartuko duten ekimenak eta itunak.

Bi kasu horietan, proiektu bakoitzeko gehienez 5.000 euroko laguntzak emango dira.

### **Bazkide Estrategikoen Sarea**

Orain arte, Eusko Jaurlaritzak ondorengo eskualde hauekin sinatu ditu akordioak eta memorandumak: Jiangsu (Txina), Bavaria (Alemania), Flandria (Belgika), Queretaro (Mexiko), Cundinamarca (Kolonbia), Quebec (Kanada), Gales (Erresuma Batua) eta Akitania Berria (Frantzia).

Atzerrian Euskadiren interesen zati handi bat biltzen duten eta lehentasunezko arreta jasotzen ari diren lurraldeak dira —Euskadi nazioartekotzeko, esparru geografiko estrategikotzat jotzen dira eskualde horiek—.

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### GOBERNUAK AURRERA EGIN DU GARDENTASUN-EREDUAN, ETA HOBETU EGIN DU HERRITARREN ESKURA JARTZEN DUEN INFORMAZIOAREN KOPURUA ETA KALITATEA

- Gero eta informazio gehiago dago argitaratuta formatu irisgarriagoan eta herritarrentzat era ulergarriagoan
- Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak eta Osasun Sailak eta Hezkuntza Sailak eman diote, 2019an, informazio publikora jotzeko eskabide kopuru handienari arreta

Gobernu Kontseiluak onartu egin du “*EAEko eta bere sektore publikoko administrazio orokorrean gardentasuna ezartzeko mailari buruzko 2019ko balantzearen txostena*”. Bosgarren urtez jarraian prestatu du Eusko Jaurlaritzak dokumentu hau eta, horrela, 2015eko urtarrilaren 13an hartutako konpromisoa bete du; orduan, informazio publikorako sarbidea, publizitate aktiboa eta gardentasunaren eta gobernu onaren kulturaren aurrerapena arautzeko neurriak onetsi zituen.

Eusko Jaurlaritzak “Gobernu Ona”ren filosofian errotuta duen gardentasun-ereduan aurrera egiten eta finkatzen jarraitzeko duen konpromisoa erakusten du txostenak. Halaber, publizitate aktiboarekin, gardentasunarekin eta partaidetzarekin zerikusia duten herritarren eskubideetan aurrera egiten jarraitzeko erronkak ere jaso ditu.

“*EAEko eta bere sektore publikoko administrazio orokorrean gardentasuna ezartzeko mailari buruzko 2019ko balantzearen txostena*” [Gardena](#) gardentasun-atarian argitaratuko da, interesdun guztiek kontsultatu eta Gardenaaren informazioa jo ahal izateko.

### INFORMAZIO PUBLIKORA JOTZEKO ESKABIDEAK

Txostenak Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordearen datuak jaso ditu; herritarrek Euskadin dagoen informazio publikora jotzeko arloan erreklamazioak ebazten dituen organo independentea da. Iaz, informazio publikorako sarbidea ukatzeagatiko 84 erreklamazio jaso ziren:

ERREKLAMAZIO-EBAZPENAK	UDALEN UKAPENEN KONTRA	ALDUNDIEN UKAPENEN KONTRA	EUSKAL SEKTORE PUBLIKOAREN UKAPENEN KONTRA	BESTE ERAKUNDE BATZUEN UKAPENEN KONTRA	GUZTIRA	%
Baietsiak	109	1	20	5	135	% 61,64
Ezetsiak	10		7	1	18	% 8,22
Ez onartuak	23	3	11		37	% 16,89
Atzera egiteak	21		3		24	% 10,96
Artxibatuak	2		2		4	% 1,83
Bideratuak		1			1	% 0,46
	165	5	43	6	219	% 100

2019an, bilakaera positiboa antzeman da informazio publikora jotzeko jaso diren eskabideen kopuruan. Guztira, 179 eskabide jaso dira, eta, hala, aurreko urteko kopurua bikoiztu da. Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak (% 32), Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak (% 14) eta Osasun Sailak (% 13) eta Hezkuntza Sailak (% 10) jaso dute eskabide kopuru handiena.

Gainera, txostenak Zuzenean zerbitzuaren arreta jaso duen herritarren elkarrekintzarako postontziaren funtzionamendu ona nabarmentzen du; zerbitzu hori oso orokortua dago, eta herritarrek oso ondo baloratzen dute.

### GARDENTASUN-ATARIA: GARDENA

Txostenak nabarmentzen du 2019an aurreko urtean ezarritako erronketako bat amaitu zela: [Gardena](#) gardentasun-atariaren birdiseinua. Irudi berria, grafikoak eta bistaratzeak sartu dira, bai eta informazio konplexuena ulertzen laguntzeko kontaktak ere. Hala, atari irisgarriagoa, erabilgarriagoa eta ulergarriagoa lortu da.

[Gardena](#) ataria Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde publikoekiko zeharkakoa da, eta bertan zentralizatzen da eta herritarren esku jartzen da gobernu-ekintzako gardentasun-adierazleekin zerikusia duen informazioa. Adierazle horiek honela multzokatzen dira:

- Autonomia-erkidegoari buruzko informazioa.
- Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak.
- Ekonomia- eta finantza-gardentasuna.
- Obra, zerbitzu eta horniduren kontratazioak.
- Antolamendua, hirigintza, herri-lanak eta ingurumena.

Eusko Jaurlaritzak webean argitaratzen du:

- ✓ Araudi aplikagarria eta garrantzi juridikodun informazioa: gidalerroak, jarraibideak, akordioak, zirkularrak, aurreproiektuak, erregelamendu-proiektuak, memoriak, txostenak, dokumentuak eta abar.
- ✓ Hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak. Hitzarmenak eta kudeaketa-aginduak argitaratzen dira: protokoloak, kofinantzaketa-hitzarmenak, ondare-hitzarmenak, barneko esleipenak, kontratu programak eta abar.
- ✓ Urteko eta urte anitzeko plan eta programak, eta betetze mailaren eta emaitzen adierazleak. Argitaratuta eta eguneratuta dago Eusko Jaurlaritzaren

planen egutegiaren lotura duen informazio guztia, bai eta neurketa- eta balorazio-adierazleak ere.

- ✓ Funtzioak, erakundearen organigramak, ordainsariak, Kargu Publikoen Katalogoko lanbide-profila eta -ibilbidea. Pertsona, erakunde eta ekipamenduen direktorioa bisita daiteke, erraz kontsultatu eta ikusarazteko.
- ✓ Kontratzailearen profila, Kontratuen eta kontratu txikien erregistroa.
- ✓ Dirulaguntzak eta laguntzak. Guztiak argitaratzen dira datarekin, erakundearekin, onuradunarekin, zenbatekoarekin eta abar.
- ✓ Lanpostuen zerrendak, enplegatu publikoen bateragarritasun-ebazpenak.
- ✓ Datu pertsonalak tratatzeko jardueren erregistroa. Eusko Jaurlaritzak erregistro hori 2019ko maiatzean erregistratu zuen, eta tratamendu-jardueren inbentarioa jaso du.
- ✓ Bestelakoak: derrigorrezkoa ez bada ere, Eusko Jaurlaritzak informazio ugari argitaratzen du, besteak beste, Gobernu Programaren segimendua, kargu publikoei buruzko informazioa, sailburuen bidaia-gastuak, urteko araudi-planak etab.

Gardena gardentasunari buruzko eduki orokorretako sarbideak nabarmen areagotu dira 2018tik, eta horrek erakusten du herritarrek administrazioaren funtzionamendua ezagutzeko interesa dutela:

#### KONTSULTATUTAKO GARDENTASUNARI BURUZKO EDUKIAK

ARLOA	2019	2018	2017	2016	2015	2014
Gardenaren webgunea, globalean	20.507	11.286	9.138	16.173	5.532	3.775
Autonomia-erkidegoari buruzko informazioa	774	322	335	1.283	1.422	571
Herritarrekiko eta gizartearekiko harremanak	634	159	179	659	593	221
Ekonomia- eta finantza-gardentasuna	761	306	232	954	729	372
Zerbitzu eta horniduren kontratazioa	616	202	142	582	584	223
Lurralde-antolamendua, hirigintza eta herri-lanak	244	79	46	162	198	108
Informazio publikora jotzeko eskubidea	4.097	2.995	2.253	8.359	1.715	2
Gardentasunari buruzko eduki orokorrak	5574 *	4.496 *	3.879	2.385	850	66

\* "Gardentasuna; Gobernu Ona; Grafikoak etab." en edukien saioen batura

Txostenak, halaber, aipamen berezia eskaintzen dio Covid-19ak eragin duen pandemiari. 2020an, alarma-egoera dela eta, martxoan, [Gardenaren](#) orrian, pandemiaren kudeaketan gardentasun-datuaren sarbidea argitaratu da, bai eta informaziora sarbide segurua izateko orientabideak ere. Honako hau, gainera, 2020. urte honetarako erronka garrantzitsuenetako bat da: Covid-19aren kudeaketan gardentasun-ataria prestatzeko aholkularitzarekin eta laguntzarekin jarraitzea.

## OPEN DATA EUSKADI

2019an, [Open Data Euskadi](#) atarian Eusko Jaurlaritzaren eta mendeko erakundeen 4.606 datu-multzo argitaratu ziren; gainera, beste foru- eta toki-administrazio batzuen 1.250 datu-multzo ere argitaratu ziren. Open Data Euskadi atarirako, beste administrazio batzuk katalogoan federatzea lan-ildo nabarmena da. 2019an, Donostia-San Sebastiángo Udala sartu da, eta 2020an edo 2021ean aurreikusten da Arabako Foru Aldundia hasiera bere datuak federatzen. Vitoria-Gasteizko eta Bilboko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak beren datuak 2017tik federatzen dituzte, eta Bizkaiko Foru Aldundiak, 2018tik.

Gainera, Eusko Jaurlaritzak jarraitzen du izaten Estatuko [www.datos.gob.es](http://www.datos.gob.es) datuen katalogoan *dataset* gehien argitaratzen duen datu-iturria. Modu berean, datu-multzo guztiak Europako datu irekien ataritik federatzen dira.

2019an, Open Data Euskadik bere datu irekien kalitatea hobetzeko lan egin du, batik bat honako proiektu hauetan:

- **Datu elkartuak:** datu elkartuak kodetzeko JSON-LD metodoa sartu da.
- **Direktorioaren proiektua:** Eusko Jaurlaritzako ekipamendu, pertsona eta erakundeen direktorioa sortuko da. 2020an gauzatzea aurreikusten da.
- **Datu meteorologikoak irekitzea:** 2020an herritarren esku Euskalmeten webgune berri jartzea aurreikusten da; webgunea datu irekietatik abiatuta garatu da.

## GOBERNU IREKIAREN ALDEKO NAZIOARTEKO ALIANTZA (OGP)

2018tik, Euskadi [Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzan \(OGP\)](#) dago, munduko beste 19 eskualderekin batera. Ondorioz, onartu egin du gardentasuna sustatzeko, ustelkeriaren aurka borrokatzeko, herritarrak ahalduntzeko eta gobernua eraginkorragoa eta arduratsuagoa izateko teknologia berrien ahalmena aprobetxatzeko hartu dituen konpromisoak sendotzeko erantzukizuna. Hala, Eusko Jaurlaritzak konpromisoa hartu du honako hauetarako:

- ✓ Gobernu-jarduerei buruzko informazioaren eskuragarritasuna areagotzeko.
- ✓ Herritarren parte-hartzea bultzatzeko.
- ✓ Gure gobernu guztietan lanbide-osotasunaren estandar altuenak aplikatzeko.
- ✓ Kontuak emateko teknologia berrietara jotzeko aukera areagotzeko.

## 2020KO ERRONKAK

2020. urte honetarako, “EAEko eta bere sektore publikoko administrazio orokorrean gardentasuna ezartzeko mailari buruzko 2019ko balantzearen txostena”k honako erronka hauek ezartzen ditu, besteak beste:

- ✓ Gardentasunean lidergo-postuari eustea eta bertan aurrera egitea.
- ✓ Irisgarritasunean hobetzea.
- ✓ Gardenan bistaratzeak / grafikoak areagotzea.
- ✓ Datu elkartuen proiektuan aurrera egitea.
- ✓ 2018-2020rako OGP Euskadi Planean ezarritako konpromisoen garapena betetzea.
- ✓ Derrigorrean betetzekoak ez diren gardentasun-adierazleen argitalpenean aurrera egitea.



## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK 66 MILIOI EURO BIDERATUKO DITU LANGABEENTZAKO PRESTAKUNTZA-ESKAINTZARA, ETA URTE ANITZEKO DEIALDIA EGINGO DU

- 2017an, ikastaro horietan parte hartu eta gainditu zuten pertsonen laneratze-indizea % 45ekoa izan zen
- 2019aren amaieran, Lanbidek enplegu-eskatzailen prestakuntzarako aholkularitza-zerbitzua ezarri zuen, beren prestakuntza-kontuan oinarrituta
- Lanbidek, deialdi honen aurretik, 2020ko Prestakuntza Beharren Diagnostiko bat prestatu du

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluari Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman dio; horren bidez, onetsi egin da 2020 eta 2022 ekitaldietan langile langabeentzat gauzatuko den prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdia. Horretarako, Lanbidek 65.993.400 euro bideratuko ditu. Hala, 2018ko formula errepikatuko du; orduan, urte anitzeko deialdi bat argitaratu izanak egonkortasuna eman zion prestakuntza-sistemari.

Deialdi honen ondorioz sortzen diren ikastaroen bidez, langabeen garapen pertsonalari eta profesionalari lagunduko zaie, bai eta laneko sustapenari eta lan-merkatuaren beharrei erantzuten ere; hala, langileen enplegagarritasuna eta enpresa-lehiakortasuna hobetuko dira. Eskaintza hori Eusko Jaurlaritzarekin Hezkuntza Sailaren edo Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren mendeko ez diren prestakuntza-erakunde publikoei eta pribatuei zuzentzen zaie. Beatriz Artolazabalek berak honako hau nabarmendu du: “enplegurako lanbide-prestakuntza zerbitzu publikoek langile okupatuei eta langabeei eskaini behar dizkieten enplegu-politika aktiboen neurrietako bat da”. Bere iritziz, “ekoizpen-eredu arrakastatsua kalitateko enplegurako lanbide-heziketako sistema behar du, langileen trebakuntzaren inguruko eskakizun gehiago dituen ingurune lehiakorra aintzat hartuta eta prestakuntzaren eta enpleguaren binomioak dakartzan emaitzak egiaztatuta”.

2017ko deialdiko laneratze-erantzari buruzko datu bateratuek enplegu-politika aktibo gisa duten inpaktu esanguratsua bermatzen dute. Urte horretan, ikastaro horietan parte hartu eta gainditu zuten pertsonen laneratze-indizea ikasleen % 45ekoa izan zen; enplegua aurkitu zuten prestakuntza amaitu eta hurrengo sei hileetan. Eta % 48ra iritsi zen profesionaltasun-ziurtagiri bat eskuratzeko ekintzen kasuan.

Deialdi berriaren bidez, langabeen prestakuntza-eskaintzari erantzun nahi zaio, eta Euskal Enplegu Zerbitzuak antzeman dituen beharrei erantzuteko enplegurako lanbide-heziketako jarduketak jaso ditu; hala, pertsona horiek

gaitasunak berenganatu eta lanbide-esperientzia areagotu ahalko dute, beren trebakuntza hobetzeko eta laneratu daitezen bide emateko.

## **Aurrekariak eta nobedadeak**

Lanbidek, deialdi honen aurretik, 2020ko Prestakuntza Beharren Diagnostiko bat prestatu du; bertan, gure inguruneke lan-merkatuan jarduera ekonomikoek eta enplegu-aukera hobeak dituzten okupazioen inguruan prestakuntza-erakundeek programa ditzaketen prestakuntza-espezialitateak lehenetsi dira.

2018an, langabeei zuzendutako enplegurako prestakuntzaren inguruko 2018-2020 urte anitzeko lehen deialdia argitaratu zen, prestakuntza-eskaintza zabala eta etengabea izateko, langabezian geratzen diren pertsoneri eskaini ahal izateko. Deialdi horrek orain arteko prestakuntza-eskaintza handiena onetsi zuen; 2.493 prestakuntza-ekintza izan ziren 38.000 parte-hartzaile baino gehiagori prestakuntza eskaintzeko eta, hala, prestakuntza-sistemari egonkortasuna emateko.

2018-2020 deialdi horren aldean, azken honek aldaketak dakartza. Garrantzitsuenak honako hauek dira:

### **1- Prestakuntza-programazioan malgutasuneko elementuak sartzea.**

Deialdi honetan, onetsitako prestakuntza-ekintza batzuk ordezkatu ahal izateko aukera jaso da, baldin eta ekintza horietarako ikasle kopuru nahikoa ez badago eta langabezia-egoeran dauden langileen aldetik (bai eta pertsona okupatuak ere) eta enpresen aldetik interes falta antzematen bada. Onartu egiten da erakundeek, lan-merkatuaren azterketan oinarrituta, emateko beharizan gehiago duen eta arrakastarako berme handiagoa duen beste prestakuntza-espezialitatearen bat identifikatzea eta, hala, arrakasta gutxi izan duten ekintzen ordezkizun hobeak duen beste batzuekin ordezkatu daitezkeen proposatzea.

Malgutasun-elementu hori erabat beharrezkotzat jotzen da urte anitzeko programazio batean eta jarduketak bolumen handiarekin, eta aldi horretan antzemandako eta enpresek eta kluster sektorialetan sortutako behar berriei aurre egin ahal izateko ezinbesteko egokitzapen-elementua da.

### **2- Aurretiko prestakuntza-aholkularitza jaso duten ikasleak sartzea.**

2019aren amaieran, Lanbidek enplegu-eskatzaileen prestakuntzarako aholkularitza-zerbitzua ezarri zuen, beren prestakuntza-kontuan oinarrituta; alegia, beren prestakuntzan eta lan-esperientzian oinarrituta. Tresna horren bidez, jendeak beren ibilbidera eta jakin-minetara ondoen egokitzen diren prestakuntza-ibilbideak identifikatu ahalko ditu, bai eta zenbait lanbide-gaitasun egiaztatu ahal izateko garatu behar dituzten jarduketak ere,

prestakuntza-bidearen bidez –beteko dituzten lan-jarduerekin zerkusia duten profesionaltasun-ziurtagiriak eskuratzeko prestakuntza-ibilbidea osatzeko behar dituzten prestakuntza-ekintzetara sartuz– eta lan-esperientziaren gaitasuna eta ikaskuntza ez-formalak aitortzeko prozeduraren bidez.

**EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAK, GAINERA, BESTE 30 MILIOI BIDERATUKO DITU OKUPATUEN PRESTAKUNTZA-ESKAINTZARA**

- **Urtarrilaren 1etik, Lanbidek aurretik Hobetuzek gauzatzen zituen kudeaketa-eginkizunak betetzen ditu**
- **Deialdi hori 2020 ekitaldirako Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jaso da**

Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak jakinarazi du, bestalde, Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak beste 29.797.020 euro bideratuko dituela lehentasunez okupatuei zuzentzen zaien 2020-2022 aldirako prestakuntza-eskaintza finantzatzeko dirulaguntzen deialdira. Bigarren aldiz hautatu da urte anitzeko deialdia sustatzea; horrek aukera ematen du eskaintza etengabea izateko.

Sailburuak gogorarazi du Lanbidek orain arte Hobetuz fundazioak bete dituen kudeaketa-eginkizunak hartu dituela bere gain, 2020ko urtarrilaren 1etik. Hala, langile okupatuen prestakuntzarako laguntzen deialdia Euskal Enplegu Zerbitzuak egiten du, zuzenean.

Prestakuntza-ekintza horien helburua da Euskadiko langileek 2020, 2021 eta 2022 ekitaldietan prestakuntza-eskaintza zabala izateko aukera ematea, enpresek sustatu dituzten prestakuntza-planen osagarri izatea edo, halakorik ezean, haien prestakuntza-beharrak asetzen laguntzea.

Laguntza-deialdi hori 2020 ekitaldirako Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoan jaso da.

Artolazabalek honako hau nabarmendu du: “langile okupatuen enplegurako prestakuntza funtsezko tresna da bizitza osoko prestakuntza bermatzeko, langileak eta enpresak gizarte berrira egokitzeko tresna; alegia, Enplegurako Europako Estrategiaren esparruan ekoizpen-prozesuen aldaketetan langileen lanbide-gaikuntza mantentzeko lanean eta ezagutzan oinarritzen den gizartera egokitzekoa”.

Gainera, esan duenez, pertsonen zuzendutako mekanismoa da, eta helburu du “langileen lanbide-sustapenari eta garapen pertsonalari eta bizitza osoko prestakuntzarako eskubideari bide ematea eta enplegua galtzeko arrisku kasuei arreta berezia eskaintzea”.

Gaur egungo 2018-2020 deialdian, 132 prestakuntza-plan daude onetsita, 29.799.503 euroan, 7.101 prestakuntza-ekintza egiteko; haietan, 79.898 pertsonak parte hartzen dute.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### LANBIDEK ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZAK JARRIKO DITU ABIAN, 42 MILIOI EURO BIDERATUZ

- **Gainera, Lanbidek 2,3 milioi euro bideratuko ditu gazteen prestakuntzarako eta txandakako enplegurako Hezibi programara**
- **2019an, Hezibi programan 848 pertsonak parte hartu zuten**

Beatriz Artolazabal, Enplegu eta Gizarte Politiketako Eusko Jaurlaritzako sailburuak Lanbideko administrazio kontseiluak hartutako erabakia iragarri du gaur gobernu kontseiluan. Adostasun honi esker, Lanbidek, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2020ko laguntzak jarriko ditu abian. Hauetan, kalte gehien jaso duten herriek lehentasuneko jarraipena uzango dute.

Aurrekontua 10 milioi euroan areagotu da, 2019koaren aldean. Covid-19aren pandemiaren ondoriozko egoera dela eta –ekoizpenaren, diru-sarreren eta enpleguaren beherakadan islatzen da–, deialdi honetan testuak sinplifikatu dira eta alarma-egoeraren adierazpenaren ondoren enplegua galdu duten pertsonak sartu dira, lan-merkatuan berriz txerta daitezzen sustatzeko. Deialdi honetan lau ildo finantzatu dira:

1. **ENPLEGUA SUSTATZEA:** Merkatu ez-arruntean egindako kontratazioak sustatzea du xede, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen enplegagarritasuna areagotzea helburu dutenak, haien trebakuntza eta/edo gaitasun pertsonalak eta motibazioa sustatuz. Ildo horretan, lan-merkatuan txertatzeko zailtasun gehien duten pertsonen kontratazioa sustatzen da. 2020ko deialdian, bereziki 45 urtetik gorako langabeen kolektiboarentzat, Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa 180 egun izena emanda egoteko eskakizuna ezabatu da.

2020an, helburua da mota horretako 2.500 kontratu izatea.

2. **KONTRATAZIORAKO LAGUNTZAK:** Tokiko enpresek merkatu arruntean langabeak eta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta daudenak kontratatze bide ematea du helburu, haiek argitaratutako deialdien bidez.

2020an, 2.200 kontratu lortzea da helburua.

3. **PROIEKTU ESTRATEGIKOAK:** Ildo honek langabeak eta Lanbiden enplegu-eskatzaille gisa inskribatuta daudenak kontratatze bide ematen du, enpresa-proiektu berrien edo hedapen-proiektuen ezarpenean edo garapenean, oinarri teknologikoko eta/edo berritzaileko tokiko enpresa pribatuen aldetik, toki-eremutik sustatuta.

Aurten mota horretako 108 kontratu sustatzea da helburua.

4. **LANEAN TXERTATZEKO LAGUNTZARAKO JARDUKETAK:** Ildo honen bidez, laguntza ekonomikoa ematen zaie lehentasunezko jarduketa-zonetako toki-erakundeei, eta zona horietan egiten diren enplegua sustatzeko ekintzen osagarri da (1. mota), lan-harremanean laguntza emateko, kontratatutako pertsonak lanpostuan sartu eta bertara egoki daitezen bide emateko. Helburua da enplegagarritasunarekin eta enpleguarekin lotura duten gaitasun pertsonalak eta sozialak garatzea. 2020an, helburua da gutxienez kontratatutako 1.089 pertsonarekin garatutako laguntza-jarduketak bultzatzea, lehentasunezko jarduketa-zonetan.

## HEZIBI

Bestalde Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak, gaur, Gobernu Kontseiluari Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren akordioaren berri eman dio; horren bidez, 2,3 milioi euro bideratuko dira 2020 ekitaldian gazteen prestakuntzarako eta txandakako lanerako HEZIBI programara.

Prestakuntza-ekintza horiek lanbide-heziketako ikasleei eta gazte langabeei zuzentzen zaizkie, enpresan ordaindutako lan-jarduerarekin txandaka.

2019an, Hezibi programaren eremuan enpleguarekin txandakatuta prestakuntza jaso zuten 848 pertsona kontratatu ziren, eta dirulaguntza jaso zuten.

Programa 2012an sortu zen, eta, harrezkero, haren eragina positiboa izaten ari da. Artolazabalek azaldu duenez, esperientzia oso positiboa izaten ari da; izan ere, ekitaldi bakoitzean txandakatutako prestakuntza jasotzen ari den parte-hartzaile kopurua areagotzen ari da, nahiz eta ikasleek aldi berean lanbide-prestakuntzarekin jarraitu eta prestakuntzarekin zerikusia duen lan eraginkorra garatu behar duten". 2012an, 126 onuradun izan ziren; 2013an, 258; 2014an, 375; 2015ean, 555; 2016an, 645; 2017an, 648; 2018an, 1.002, eta, 2019an, 848. 2020an, Hezibi programaren enpleguarekin txandakatutako prestakuntzaren inguruan hasieran aurreikusitako kontratu kopurua gutxienez 1.300 izan daitezkeela kalkulatu zen. Hala ere, helburu hori lortzeko zenbait faktore hartu beharko dira kontuan, besteak beste: ekonomiaren eta prestakuntza-zentroen lanaren bilakaera positiboa, eta hasierako lanbide-heziketako eta enplegurako ikasleek jasotzen duten prestakuntzarekin zerikusia duten okupazioetan kontrata dezaketen enpresetan sartzea. Covid-19aren ondoriozko egoerak, beraz, helburu horretan izan lezake eragina.

Hezibi programak bi laguntza-modalitate ditu:

1. **Hezibi-enpresak:** Gutxienez urtebeteko prestakuntza- eta ikaskuntza-kontratua formalizatzea honako hauekin:

- Egiten ari diren prestakuntza-zikloaren prestakuntza proiektu dual bilakatzeko Hezkuntzaren baimena jaso duten ikasleak.

- Egiten ari diren profesionaltasun-egiaztagiria lortzeko enpleguarekin txandakatutako prestakuntza-proiektua egiteko Lanbideren onarpena jaso duten ikasleak.

Laguntza hori 2.000 € artekoa izan ahalko da urteko, hura sinatu duten enpresentzat.

**2. Hezibi prestakuntza-erakundeak:** Profesionaltasun-egiaztagiria lortzeko enpleguarekin txandakatutako prestakuntza-proiektua onartzeak ekarriko du prestakuntza-zentroari 400 €-ko dirulaguntza ematea, ikasle bakoitzeko, bitartekaritzako, kudeaketako eta tutoretzetako jarduerak finantzatzeko.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### **GOBERNU KONTSEILUAK LURRALDE HISTORIKOEN ARTEAN GIZARTE-ZERBITZUEN FUNTSA BANATZEA ONETSI DU, 14.008.000 EUROAN**

Gobernu Kontseiluak 14.008.000 euroko gasturako baimena eman du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroan aurreikusitako Gizarte Zerbitzuen Funtsa, 14.008.000 eurokoa, lurralde historikoen artean banatzeko. Horrela, Arabako Foru Aldundiari 2.279.101,6 euroko transferentzia egingo zaio, Bizkaiko Foru Aldundiari 7.058.631,2 eurokoa eta Gipuzkoako Foru Aldundiari 4.670.267,2 eurokoa.

Foru-aldundiek aipatutako kopuru horiek banatuko dituzte eta Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Organoak aldi behingo segimendua egingo du eta urtero Funtzaren betearazpenari buruzko txostena emango dio Finantza Publikoen Euskal Kontseiluari.

Gizarte Zerbitzuei buruzko Legeak xedatzen du egindako eskumen-banaketaren ondorioz dagokion finantza-doikuntza egitea euskal administrazio publikoen artean, finantza-nahikotasuna bermatzeko, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa hornitzeko autonomia-erkidegoaren mailan, foralean eta udal-mailan.

Legeak gainera dio eskumenen birbanaketa horrek eta finantza-doikuntza horrek inolaz ere ezingo dutela ekarri murrizketarik indarrean sartzen den egunean dauden prestazio eta zerbitzuen intentsitate- eta estaldura-mailetan.

2014an Gizarte Zerbitzuen Erakundeen arteko Organoan Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroaren tramitazioaren esparruan lortutako akordioaren bidez, "Funts" edo erakundeen arteko finantzaketa-lankidetzarako formula bat sortzea aurreikusten da, foru- eta/edo udal-mailako gizarte-zerbitzuen arloan zerbitzu eta prestazio ekonomikoak finantzatzeko.

2019ko urriko Finantza Publikoen Euskal Kontseiluaren bileran erabaki zen Aparteko Funtsa eratzea, 20.000.000 eurokoa, Euskal Autonomia Erkidegoko foru- edo udal-erakundeek egiten dituzten Zorroari buruzko Dekretuko prestazioak eta gizarte-zerbitzuak –berriak edo oso gutxi garatuta– hornitzeko beharrezkoak diren jarduketak finantzatzeko.

Funts horri eginiko finantza-ekarpenak Eusko Jaurlaritzari dagozkie batetik, eta, bestetik, foru-aldundiei, koefiziente bertikalarekin proportzioan (% 70,04 eta % 29,96) eta horizontalarekin proportzioan (Araba % 16,27, Bizkaia % 50,39 eta Gipuzkoa % 33,34).

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK 580.000 EURO ONARTU DITU MUSIKA JARDUERA PROFESIONALAK DIRUZ LAGUNTZEKO

- **Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza hauen bitartez iaz 78 proiektu lagundu ziren; deialdi honek iaz baino 20.000 euro gehiago izango ditu aurten**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Kontseiluak 2020an musika jarduera profesionaletarako diru-laguntzak onartu ditu bere gaurko saioan. Aurten, 600.000 euroko bideratuko dira musika ekitaldiak sustatzera eta, oro har, musika lanak garatu edo zabaltzera. Deialdiak iaz baino 20.000 euro gehiago izango ditu aurten, eta orain bi urte baino 70.000 euro gehiago.

Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako deialdi honek bost modalitate izango ditu aurten, guztien helburua delarik Euskadiko musikaren arloa bultzatzea:

- **Partitura inprimatuak argitaratzea:** Euskal musikarien partiturak editatzeko diru-laguntzak. Modalitate honek 30.000 euroko aurrekontua du. Iaz, 10 laguntza eman ziren modalitate honen bidez. Hona hemen laguntzak jaso zituzten eragileetako batzuk: CM Ediciones, Orpheus Music edo Euskal Herriko Txistulari Elkarteak.
- **Musika proiektu unitarioak:** Diru-laguntza lerro honen bitartez musika-proiektuen ekoizpena eta promozioa sustatuko da, bai eta sentiberatze jarduerak edota euskal musikaren inguruko ikerketa eta difusioa ere. Musika sektoreko eragileen etengabeko prestakuntza ere lagunduko da. Modalitate hau musika proiektu propioak kudeatzen dituzten talde eta eragileei zuzenduta dago eta 162.000 euroko aurrekontua du. Honi esker, iaz 37 ekimen diruz lagundu ziren, eta onuradunen artean honako hauek daude: Zea Mays, Josu Okiñena, Ensemble Kuraia, Pirritx, Porrotx eta Marimotots, Izaro, Lauroba edo Diego Vasallo, beste batzuen artean.
- **Musika ekimen enpresarialak:** Bigarren modalitatearen kasuan bezala, modalitate honen bitartez musika proiektuen ekoizpena eta promozioa sustatuko da, bai eta sentiberatze jarduerak edota euskal musikaren inguruko ikerketa eta difusioa ere. Bigarren modalitatearen bidez bezala, musika sektoreko eragileen etengabeko prestakuntza ere lagunduko da. Modalitate hau, dena dela, musika proiektu desberdinak kudeatzen dituzten eragileei zuzendua da (batez ere disketeak) eta 214.000 euroko aurrekontua du. Iaz, 17 ekimen lagundu zituzten modalitate honen bidez; laguntza-lerro honen azken onuradunen artean daude Bilboko Kafe Antzokia, Serrano Producciones, Elkar, Mauka Musikagintza edo Baga-Biga Produzioak.



- **Zuzen-zuzenean zirkuitua:** Modalitate honen helburua da euskal musika taldeen programazioa bultzatzea musika areto pribatuetan. Modalitateak 140.000 euroko aurrekontua izango du. Iaz 11 eragilek jaso zituzten laguntzak lerro honen bidez; Azpeitiko Sanagustin Kulturgunea, Bilboko Kafe Antzokia, Gasteizko Helldorado edo Donostiako Dabadaba aretoa izan ziren laguntza jaso zutenetako batzuk.
- **Musika zikloak:** Modalitate berri honen bitartez musika zikloen antolaketa lagunduko da. 50.000 euro bideratuko dira modalitate honetara. Modalitate honen bidez hiru proiektu lagundu ziren iaz: Kuraia Musika Garaikidearen Topaketak, Bilbaína Jazz Club-en 2019-2020 zikloa eta, hirugarrenik, Musikagileak-Musika Garaikidearen Zikloa.

Covid-19ak eragindako krisiak sektorean duen eragina dela eta, musika-zikloetarako modalitatea malgutu egin da, eta lerro horretara sartzeko kontzertuen gutxieneko kopurua murriztu da: aurten gutxienez 10 antolatu beharko dira, eta ez 15. Era berean, deialdiak ez du baztertzeko jasotzen diren zenbait neurri eta baldintza malgutzea aurrerago.

## Segurtasuna

### **JOKOAREN EUSKAL BEHATOKIRAKO SEGURTASUN SAILAREN ETA UPV/EHUren ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENA SINATU DA**

Gobernu Kontseiluak Segurtasun Sailaren eta UPV/EHUren arteko lankidetzahitzarmena onartu du Jokoaren Euskal Behatokiarentzat interesgarriak izan daitezkeen era guztietako ikerketa-proiektuak sustatzeko, bultzatzeko eta garatzeko: iritziak, jarrerak eta datuak.

Ikerketa-proiektuen helburu nagusia Behatokiarentzat edukiak hornitzea da. Horretarako, ikerketa horren programa hainbat lan-ildo ezberdinez osatuta dago, eta proiektuak hartzen dituen hiru urteetan gauzatu beharko dira: inkestak, azterlan monografikoak, informazio-buletinak edo Segurtasun Saileko Joko eta Ikuskizun Zuzendaritzak dituen adierazle estatistikoen eguneratzeak eta analisiak.

Aurreikusitako ekintza horiek gauzatzeko, Segurtasun Sailak 50.000 euro jarriko ditu 2020an, eta urtean gehienez 100.000 euro jartzea aurreikusten du 2021 eta 2022 ekitaldietarako.

## Lana eta Justizia

**DIRULAGUNTZEN DEIALDIA, ESPETXEETAN BARNERATUTAKO EDO  
BALDINTZAPEKO ASKATASUNEAN DAUDEN ZIGORTUEN ETA  
ASKATASUNAZ GABETZEKO ZIGORRAREN BETEARAZPENA ETENDA  
DUTEN ZIGORTUEN GIZARTE- ETA LAN-INKLUSIORAKO  
PROIEKTUETARAKO**

Deialdiak bostehun mila euroko (500.000 €) zuzkidura ekonomikoa du, eta, norgehiagoka erregimenean, Euskal Autonomia Erkidegoan espetxeetan barneratuta dauden edo baldintzapeko askatasunean dauden eta honako baldintza hauek betetzen dituzten zigortuentzako gizarte- eta lan-inklusioko proiektuak diruz laguntzera bideratuko da:

Espetxetik kanpoko baliabideetan egitea eta honako modalitatearen bat izatea oinarri:

- Esku-hartze psikoterapeutikoko eta gizarte- eta hezkuntza-arloan esku hartzeko programak.
- Irteera programatuak eta landa-lana.
- Egoitza- eta ostatu-baliabideak.
- Droga-mendekotasuna duten pertsonak gizarteratzeko baliabideak
- Prestakuntza- eta gaikuntza-zentroak.
- Enplegurako orientazio- eta laguntza-zentroak.

Espetxeetan hasten diren proiektuak Espetxeko Zuzendaritzak onestea.

Laguntza integralaren metodologia erabiltzea eta 2020. urtean egitea.

## Presidencia

### EL GOBIERNO APOYARÁ PROYECTOS DE COLABORACIÓN ENTRE AGENTES VASCOS Y DE LAS REGIONES DE GALES Y FLANDES

- **Ambas regiones forman parte de la Red de Socios Estratégicos de Euskadi**

El Consejo de Gobierno ha dado hoy luz verde a la convocatoria de ayudas a proyectos de cooperación técnica con las regiones de Gales y Flandes para 2020-2021.

Las ayudas suman un total de 40.000 euros y se enmarcan en un Decreto aprobado el pasado año cuyo objetivo es intensificar las relaciones bilaterales y establecer nuevas alianzas y colaboraciones con otras regiones del exterior consideradas estratégicas para Euskadi, entre las que se encuentran Gales y Flandes y con las que el País Vasco ha suscrito un Memorando de Entendimiento (Gales) y una Declaración de Intenciones (Flandes).

Así, las subvenciones van dirigidas a personas jurídicas privadas, con domicilio en la Comunidad Autónoma de Euskadi, que presenten un proyecto de actividad o de colaboración bilateral, y que cuenten con la participación de un socio de estas dos regiones estratégicas.

En concreto y en el caso de **Gales**, las materias de los proyectos de colaboración bilateral subvencionables serán:

- Movilidad y Transportes (principalmente, infraestructura y servicios ferroviarios);
- Medio Ambiente y Cambio Climático;
- Tecnología, Innovación y Competitividad;
- Energías Marinas;
- Industria Agroalimentaria;
- Educación y Formación;
- Estrategia y Política Fiscal, Política de Administración Tributaria, Gestión Presupuestaria y Servicios Sociales;
- Salud y Servicios de Asistencia Sociales, atención médica basada en valores y envejecimiento activo y saludable;
- Oportunidades de Negocio;
- Impulso de una sociedad multicultural y tolerante (sobre todo, en materia de política lingüística y promoción del sector cultural).

Por lo que se refiere a **Flandes**, las materias subvencionables serán:

- Investigación, Desarrollo e Innovación (industria y tecnología, salud, políticas sociales, igualdad de género, gestión del sector público, infraestructuras y transporte);

- Mercado laboral y política económica (formación profesional, políticas de productividad y competitividad);
- Medio Ambiente (cambio climático, tratamiento de aguas, materiales y residuos, así como tecnologías compatibles con el medio ambiente y energías renovables);
- Salud (sobre todo, cuidados crónicos);
- Sectores Cultural y Creativo;
- Impulso de una sociedad multicultural y tolerante (construcción de paz y respeto de los derechos humanos);
- Iniciativas y alianzas que refuercen el papel de las regiones en Europa

En ambos casos las ayudas no serán superiores a los 5.000 € por proyecto.

### **Red de Socios Estratégicos**

Hasta el momento, el Gobierno Vasco ha suscrito distintos acuerdos y memorandos con Jiangsu (China), Baviera (Alemania), Flandes (Bélgica), Querétaro (México), Cundinamarca (Colombia), Quebec (Canadá), Gales (Reino Unido) y Nueva Aquitania (Francia).

Se trata de un conjunto de territorios considerados como ámbitos geográficos estratégicos para la internacionalización de Euskadi, que concitan una parte sustancial de los intereses vascos en el exterior, y que están siendo objeto de atención prioritaria.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### EL GOBIERNO AVANZA EN SU MODELO DE TRANSPARENCIA MEJORANDO LA CANTIDAD Y CALIDAD DE INFORMACIÓN QUE PONE A DISPOSICIÓN DE LA CIUDADANÍA

- Cada vez hay más información publicada en formato más accesible y comprensible para la ciudadanía
